

HARREMANAK

Gure enpresak bezeroekin zein harreman mota duen zehaztea garrantzitsua da gure zerbitzuak arrakasta izateko eta gure bezeroak gustura sentitzeko. Harreman mota asko daude enpresen eta bezeroen artean eta atal honetan gurea zein izango den definituko dugu, argi azaltzeko zein izango den gure erlazioa hauekin. Gu enpresa munduan hasi berriak garenez, lehenbizi bezeroak lortu beharko ditugu eta behin hauek lortuta mantendu eta gehiago lortzen saiatuko gara. Oso garrantzitsua da hasiera batean ditugunak ez galtzea, galduz gero ez dugulako lortuko gure zerbitzua handitzea eta beraz, enpresak porrot egingo luke.



Gure ustez, guk eskaintzen dugun proiektuan oinarrituz, erlazio mota onena aurrez-aurrekoa da, beraz, hasiera batean behintzat horrela izango da. Behar-beharrezkoa baita gure proiekturako erlazioa pertsonala izatea, gure bezeroak ondo jakiteko nolakoa izango den ikuskizuna eta ondo ulertzeko gure baldintzak eta bete-beharrak. Erlazio mota hau uste dugu atseginagoa izango dela huentzat, gertutasuna sentituko dutelako eta horri esker gure zerbitzuak kontratatuzera animatuko liratekeelako. Gainera, aurkezpen bat egingo genuke gure proiektua ondo zehazteko eta dena argi geratzeko. Hau egiteko, ezinbestekoa da harremana presentziala izatea. Aurkezpena online bidez egitea ez zelako oso profesionala izango gure aldetik.

Umeekin edukiko dugun harremanaz hitz eginez, bereziki umeekin kontaktu pertsonala mantentzea ezinbestekoa da. Lehiaketan zehar beraiekin elkarreraginetan arituko gara lehiaketa, arauak, jolasak... ondo azaltzeko, horregatik oso erlazio pertsonala mantenduko dugu talde bakoitzarekin eta edozein zalantza argitzeko prest egongo gara momentu oro.



Hala ere, gure zerbitzua hasiera batean beti berdina izango denez, hau da udaletxe berdinekin, hasieran gure proiektua aurkeztera joango ginatete, baina ez genuke inoiz kontaktua galduko beraiekin zalantzak edukiko balituzte, ezinbestekoa delako hauek ahalik eta azkarren argitzea. Hori dela eta, gure bezeroei zalantza hauek argitzeko internet bidezko kontaktua eskainiko genieke. Horretarako gure emaila eta instagram kontua erabiliko genituzke. Bertatik idatziko baligute guk beraien galderak erantzungo genituzke, eta bilera bat egin nahi balute bertatik adostuko genuke, bai ordua eta baita lekua ere.